

**ISILDU ZIREN ARMAK, ETA HITZ EGIN DEZAGUN, BAI,
BAINA HISTORIA DESITXURATU GABE**

BOTEREaren eta BOTERETSUen lehen eginbeharretakoa mendekoak ongi menderatuta edukitzea da, helburua lortzeko bitarteko guztiak erabiltzen dituztela, gezurra eta manipulazioa tartean... baita armak ere, Espainian 1.936an gertatu zen bezala, eskuinak, Frente Popularrekoek hauteskundeak era ezin demokratikoago batean irabazi ondoren, estatu-kolpe lazgarria jo baitzuen. Horrela jokatu baitzuten frankistek —jauntxoek, dirudunek, militarrek eta piramidearen erpinean zeudenek... baita herritar arrunt askok ere: hauek beren kabuz joanak, horiek behartuta, eta haiek auskalo zergatik... guztiek ere Eliz Ama Santu eta Erromatarren bedeinkapen eta aldeotasun erabatekoaren babesa jasotzen zutela, Euskal Elizaren hainbat eta hainbat kiderena salbu—: horrela jokatu zuten, bai, frankistek, printzipio demokratikoak ukatu eta haien gaintetik jauzi eginez... beren poltsa eta poltsikoak zaintzeko ahaleginean, baita haiek gizentzekoan ere... halakoak izaten baitira gerra guztiak, are gehiago gerra fratizidak, eta halakoak ondorioak: lapurreta eta harrapekeria, mespretxu eta umiliazio...

Espainian, gaur egun, haien oinordeko politikoez —PPko neofrankistek, bestela esanda— agintzen du... eta are luzeagotu da haien agintaldia (ustelkeriarekin hertsiki lotua), PSOEn deskalabrua ikusi ondoren (ongi merezia, nik uste, hain handia izan da psoezialisten epelkeria... ez sozialista, ez obrero... bai, ordea, español: *mucho español*).

Gauza jakina da, bestalde, ETAk orain dela bost urte aldarrikatu zuela alde bakarreko su-etena. Baina ETArri buruzko afera ez da oraindik bukatu... Erakunde armatuari, izan ere, armak entregatzea falta zaio. Hori ez da, haatik, azken kapitulua izango, bake-prozesuak erremate gisako beste kapitulu bat ere izango baitu... hasia ere hasia dena jada, azken bolada honetan jende

guztia baitabil —partidu politikoak, kolore orotako biktimen aldeko taldeak, Bakegintza eta Bizikidetzarako Aholku Batzordeak, e.a.— *relatoa* gora eta *relatoa* behera...

PPkoena lotsagarria da. Bost urte izan dituzte bakera bidean ahalegintxo bat egiteko aukera, eta pauso erdirik ere eman ez! ETaren biktimen aldeko elkarteetako kide eta bazkideei dagokienez, berriz, derradan ezen ontzat hartzen dudala haiek defendatzen dituzten biktimei, biktimak diren neurrian, halako aitortza berezi bat egitea, instituzioen aldetik, baina horrek ez du esan nahi kritigarriak ez direnik... ez biktimek beren garaian ibili eta erabili zituztèn politika-bideak, ezta hainbat hiritarrek haien izenean gaur egun praktikatzen eta garatzen dituztenak ere. Zer esan nahi dudan horrekin...? Bada, guztiz mendekatzaila iruditzen zaidala elkarte horiek egin ohi duten politika. Batzuek zein besteek —PPkoek eta elkarte horietako kideek— garaile eta garaituen arteko tesiari eusten diote, gogor baino gogorrago eusten ere, halako eran, non bai baitirudi beraienak direla lehen mailako biktimak, ETak eragindakoak. Frankismoak eragindakoak, berriz —Kanputxearen ondoren, Espainia da munduan desagertu gehien duen lurraldea!!!—, bigarren mailakoak.

Datuak datu dira —gehiago ere emango ditut—, eta nola geldituko naiz, bada, eman berri dudan datu horrekin lasai, memoria historikoari traizio egin gabe? Egia da BOTERE BOTERETSUa, gero, datuok nahasten eta desitxuratzen saiatzen dela, erarik zikinenean maiz —egunotan jakin dugu, *Fundación Fco. Franco*-ko presidenteordearen bidez, erregimen frankistak ez zituela fusilatu 23.000 pertsona baizik: atera hortik kontuak...—, baina mendekook ere ez gara tontoak, ezin erremediatuzko eran ez bederen.

Hemen, izan ere, guztiok ditugu *geure* biktimak. Nik etxeko bi izango ditut aipagai: gure osaba Manuel, eta gure aita, osabaren anaia zena.

Osaba, Ezkaba mendian akabatu zuten —San Kristobal gotorlekuan—, beste preso batzuekin batera. Hango buruzagi militarrek goi-aginduren bat jaso zuen... eta beronek, jarraian, presoak bildu, eta alde egin zezatela agindu zien, libre zeudela-eta. Gehienek bazekiten, bai, zer zetorkien, baina otzanduta bezala hartu zuten gudalburuaren agindua, harik eta denok, bizi-

senaren azken bulkadak oldartuta-edo, mendian behera korrika hasi ziren arte... eta ra-ta-ta...!

Hala kontatu ziguten behintzat...

Aitarena, berriz, arinagoa izan zen —ez zuten garbitu bederen!—, baina, aldi berean, okerrago ere bai, beharbada. 1.937-I-9an, Oiartzungo Plaza Nagusian atxilotu, eta berehala eraman zuten Ondarretako presondegira. Osasunetik eskas samar ezagutu nuen nik aita bizitza osoan —bi ultzera izan zituen, eta bi operazio serio, urdaila arras txikiagotu zizkietenak—, eta beti pentsatu izan dut kartzelan bizi izandako tentsioak eta ezinegonak hartan ere —ultzeren sorreran, alegia— izan zutela eraginik: ez eragin halamoduzko bat, ez, eragin zuzen eta erabakigarria baizik.

Ez dakigu zehatz-mehatz zenbat urte egin zituen aitak giltzapean, daten datuak ez baitatoz horretan bat, baina, azken kalkuluen arabera, bi urte eskas egin zituelakoan gaude.

Artean, gerra betean zeuden gureak eta besteak, eta, hala, pelotoi frankistek, tarteka, preso banaka batzuk goizean goiz aukeratu —hauek fitxatuak, horiek auskalo nork asmatutako kalumniaren susmopean, eta haiek aliritzira—, leku jakin batzuetara eraman, eta han akabatzen zituzten... gudu guztietako esku-liburuak diotenaren arabera, izua are izuago bihurtzeko saio izugarrian. Eta nik imajinatzen dut aita eta Ondarretako preso guztiak, tentsio harekin —testuinguru hartan Loti Ederrak ere jarraitzaile gutxi izango zituen, bistan da...—, oihu zakar, bota-hots eta burdinots haien zalapartapean kikilduta, zeinek bihotzari, takikardiaren ertzean, eztarrirainoko jauziak baitzeragizkieten, **TAUP** eta **TAUP**... Eta presoak egunero edo ia egunero jaikitzen ziren torturaldi haien astindupean, egunsentiko eguzkia guztiz belztu eta betiko eklipsatuko zitzaien beldur...

Bestelakoan, gerraosteko umeok askotan izaten genuen mintzagai tortura mota bat geure bestelako jolas-borrokaldietan. Txinan aplikatzen omen zen. Torturatzailleak biktima aulki batera lotzen zuen, estuki lotu ere, mugimendurik txikiena eragozteko; harekin batera, burua jartzen zion tantaz tantako etorria zuen iturri baten azpian, ur-tantek puntu bera izan zezaten jopuntu eta kolpagune. Eta urak, pixka-pixkanaka, biktimaren burua higatu eta zulatzen zuen. Eta honen oinazeak —fisikoak zein psikologikoak—

izugarriak omen ziren! Nolakoak ote ziren Ondarretako presoek torturak eta larriminak, kartzelako buruzagi eta zaintzaile frankistek egunez egun egin eta eragindakoak? Nolakoak ote ziren, bai, presoek igaro behar izaten zituzten egun guztietako ordu, minutu eta segundo haiek guztiak, egunsentiaren hil ala biziko beste segundo hari begira zituztenak, halabeharrez? Segundo hura, bai, non eguzkia bera ere bat-batean belztu baitzitekeen, ra-ta-ta...!

Eta, hala ere, buru-buruan sartu beharko genuke, frankisten urte eta urteetako propaganda iruzurtiaren aurka, beraiena ez zela ez *alzamiento* bat, ez *levantamiento* bat, eta ez *pronunciamento* bat izan, *golpe de estado criminal* bat baizik... *a pesar de los años de placidez de Jaime Mayor Oreja*, derradan hori ere, bide batez—; eta, hala ere —nioen—, Ondarretako hartan, geratu zen guretzat, bai, gauza gogoangarririk... gure aita zenak idatzi ez zuen, bada, 1937an —kartzelan preso zegoela, beraz—, soneto bat, etxekook duintzen eta harrotzen gaituena! Ez galdetu niri orain sonetoa literarioki ona edo txarra den, baina barru-barrutik adieraz dezaket, etika eta moralaren ikuspegitik, sekulakoa dela. Poema hura, aitaren haragiaren dardara batetik sortua eta bere kristau fedea sendotua... Ez dakit ona edo txarra den, berriro diot. Baina autentikoa bai. Eta autentizitatea, sarritan, edertasunarekin ere lotua egoten den heinean, poemak izango du, bai, ederretik zerbait: niretzat behintzat badu...

Honako hau duzue:

“Mi paciencia a sufrir más no alcanza... / en un año de encierro interminable, / la fortuna, ceñuda e inmutable, / mata, apenas nacida, mi esperanza. // Mi inocencia al palpar, la ira me lanza / contra el ser vil, artero y detestable / que me arrojó a esta vida miserable, / y a mi boca un clamor sube: ¡venganza! // Mas clavo en Ti los ojos, y pendiente / al verte, mi Jesús, de dos maderos, / modelo de perdón y sufrimiento, // sobrecogido mi ánimo se siente, / y humilde dominando instintos fieros / suave me parece mi tormento”.

Gure aitaren portaera, giza sentimenduen aldetik, eredugarria izan zen —etxekook halakotzat jotzen dugu behintzat—, baina, hala eta guztiz ere,

bigarren mailako biktimatzat hartua izan da urte luzetan, galtzaileen bandoko kidea izaki. PPari ez baitzaio batere interesatzen ongi ehortzita zeudèn hezurak, bizon memoria historikoaren eskutik, matxinatzen hastea; are gehiago: gerrako eta gerraondoko biktimen errekonozimendua bilatzen duten prozesu horiek guztiak ezkututzen edo oztopatzen saiatzen da, nahiz eta, azken bolada honetan, aurkako politika egiteko zirrikituak ere zabaltzen ari diren... hobietatik ateratako hezur anonimoak identifikatzea —eta haiei izen-deiturak ematea, beraz— ez baita, ez, txantxetako kontua; aldiz, aipagarri bezain goresgarria da.

Ez, ez naiz esaten ari lehen mailako biktima zirenak —frankistenak eta neofrankistenak, alegia— bigarren mailakotzat hartu beharko liratekeenik, eta bigarren mailakoak lehen mailakotzat... biktimak, biktima diren heinean, beti baitira lehen mailakoak.

Aitortu behar dut, baina, une honetan, egiari zor diodan amorekatik, demokrazia (?) iritsi zèn garaian, Espainiako parlamentuan egin zutela lege bat —Memoria Historikoaren legea—, gerra zibileko galtzaileen aldeko biktimak nolabait konpentsatzen zituena; guk, haatik, gure kasuak gutxieneko baldintzak betetzen ez zituela-eta, ez genuen inongo erakundetik xentimorik ere jaso, gure aita zenaren auzian. Beste batzuek, aitzitik, oraindik ere jasotzen dute urtero-urtero. Eta, hala ere, ez nabilkizue diru bila, bakea balio guztien goi-balioztat baitaukat. Baina bakeak, bene-benetakoa izateko, ezin onar dezake garaile eta garaituen arteko berezkeriarik, jakin dakidan arren BOTERE BOTERETSUa, armak eta armadak berme dituen heinean, erarik bentajistenean jokutzen ahaleginduko dela, batzuetan disimuluan eta besteetan disimulurik gabe, bake prozesuari lotutako balizko akordioaren balantza bere alde makurrarazteko asmotan. 1.936ko gerran ere, frankistek irabazi zuten: erakutsi ere hala erakutsi zuten geroko urteetan, gerran zapalduak izan zirenak —haiek eta haien familiak— are gehiago zapaltzen zituztela. Diktadorearen heriotzarekin, baina, berehala ikusi zuten Francoren jarraitzailerik argienek Espainiak behar-beharrezkoa eta ezinbestekoa zuela diktaduratik demokraziarako jauzia egitea.

Eta konstituzio bat idatzi zuten, Maiuskulaz idatzi ere, jakina... nik, ezinbestean, minuskulaz idazten dudana: artikulua batzuk urratu ere gustura

urratuko nituzke, nire esku balego: artikulua arraio hori, esate baterako, Euskal Herrian ere espainiera obligaziozko hizkuntza hartzera derrigortzen nauena (eta, hala ere, biziki maite dut gaztelera, baina hori beste kontu bat da), eta euskara, eskubidezkoa.

Eta, konstituzioaz baliatuz, itxura aldatu zioten Espainiari, baina funtsezkoari ongi helduz: Espainiaren batasun sakrosantuari bereziki...

Arzalluzi behin baino gehiagotan entzun izan diot Nafarroa konstituzioan txertatzeko aferan —Nafarroak Euskadirekin bat egin behar ote zuen, lurralde bakar gisa, edo bereiz joan behar ote zuten, bi herrialde gisa—, Espainiako militarrek izan zutela azken hitza: haiek erabaki zutela, alegia, Euskal Herriaren Hegoaldeko bitasuna, nahiz eta mende batzuk lehenago ongi zehaztu zituen Axularrek Euskal Herriaren benetako dimentsioak, barruan Nafarroa eta Hegoaldeko beste hiru probintziak ez ezik, Iparraldekoak ere (gehi beste lur batzuk, zehaztu ez zituenak, txikitat eta garrantzirik gabekotzat jota-edo) sartzen zituela.

Armekek erabaki zuten, beraz, auzi hura; konstituzioaren 8. artikulua ere, halatsu... Aspaldikoa da, baina, frankisten eta neofrankisten... eta psozialista ez gutxiren gaitza, Espainia Handi-Mandiaren edo España Inperialaren gloria galduak bortizki bezain malenkoniatsuki oroitarazten dizkiena. Espainia Handi-Mandiaren ametsa —*el Imperio en que no se ponía el sol*— daramate inkontziente kolektiboan... eta horregatik, hain zuzen, baztertzaillea, ukatzailea eta exkluyentea da haien nazionalismo-inperialismoa... euskotar askok ere defendatu izan dutena eta defendatzen dutena —derradan, bide batez—, Kolonek Amerika aurkitu zuen garaitik —konkistatzaileen artean izen handikoak izan dira euskaldun asko: ...Juan de Zumárraga... Pedro de Ursúa... Legazpi... Urdaneta... Blas de Lezo... Churruca...— gaurdaino: UPNko, PPko eta PSOEko buruzagi, militante eta botu-emaileen eskutik nagusiki.

Nik, hala ere, bereizketa bat egingo nuke (ez da nik asmatua, baina iritzi hori oso zabaldua dago gure lurretan), espainiarren artean: *españolak*, alde batetik —nik español normaltzat edo español zibilizatutzat jotzen ditudanak—, estatuko nazioen erabaki erabakigarriak onartzeko prest leudekeenak, elkarrizketaren bidez (Podemos-ko eta antzeko taldeetako jarraitzaileak sar ditzakegu sail honetan), eta *españolazoak*... edo, leunago:

españolísimoak, edozertarako prest leudekeenak, baita alfer-alferrik egin zituztèn aireportu eta aerodromoei —Ciudad Real, Castellón, Huesca, Murcia, Lleida...— erabilera egokia emateko ere... indarra indarkeria bihurtzeko betiere prest, konplexu handirik gabe gainera, nik uste, konplexuz gainezka ikusten ditudan arren bestalde, gogoetabide autoritarioak hitz handietara (UNIDAD, GRANDEZA, LIBERTAD...) eramango balituzte bezala, halabeharrez: hitz handi-mandi horiek, beren handitasun-manditasunengatik hain zuzen, kristo guztiari betearazi behar zaizkionak, *¡por narices!* ez bada, *¡por cojones!*, korapilo bakoitzak bere askabidea du-eta [interesgarria da, alde honetatik, nola españolísimoek eraman duten, zapalketa politikoarekin batera, kulturala... euskararen aurkakoa, nagusiki; horren berri jakin nahi duenak, baina, badu liburu bat (*El libro negro del euskara*, Joan Mari Torrealdei), historia hori ongi laburbiltzen duena eta Espainiako eskoletan eman beharko litzatekeena, ea espainiarrek ulertzen gaituzten behingoz: euskaldun askok ez dugula handi-mandiak izan nahi, joño...! Eta konformatuko ginatekeela, espainiarrek dagokiguna errespetatuko balute: autodeterminazio eskubidea, esate baterako].

Jakin ongitxo dakidan arren politikari gehienek, beren jardunbidean, Makiavelo dutela maisu eta gidari, ni, politika aintzakotzat hartzen hasi nintzenetik eta hura bideratzeko orduan, era garbi eta gardenago batzuen alde lerratu nintzen, gandhizale egiten nintzela. Nintzen, eta naiz. Aldi berean, ez naiz gorrotozalea. Naizen bezalakoa izateak, ordea — antimilitarista ere banaiz, noski—, ez nau, ustez, belaxka egiten... eta begiak irekitzen ditudanean, ikusten dudana ikusten dut. Eta zer ikusten dut? Bada, BOTERETSUAK, askotan eta askotan, matoi hutsak direla —mozorro bikaina sarri-askotan DEMOKRAZIA, demokraten indarkeri-gehiegikeriak estaltzeko!— , ankerrak, gupidagabeak... eta horrek aztoratzen nau... neure onetik ateratzen nau... eta horrek, halaber, ikusten ditudan bidegabekerien testigantza ematera narama, boteretsuen gezurren aurka.

Ikusi-makusi. Zer ikusi...? Ikusten dut, ikusten dut... garbi ikusi ere, PPa partidu ustel bat dela; garbi ikusten dut, orobat, gero eta botu gehiago dituela, ustelkeria kasuak areagotu arren; eta ondorioa galdera baten forman datorkit: nola emango diot neure laguntza eta nola neure sostengua

demokrazia ez-demokratiko honi, zeinak agintean partidu neofrankista bat duen, jende xehea gero eta ustelago izatera bultzatzen duena?

Ikusten dut, garbi ikusi ere, PPren politikak gero eta handiagotzen duela aberats eta pobreen arteko leizea... eta nola emango diot neure laguntza eta nola neure sostengua aberatsak aberatsago eta pobreak pobreago izatera bultzatzen duen demokrazia ez-demokratiko honi, zeinak agintean partidu frankista bat duen, lotsagabea bezain zinikoa, zinikoa bezain lotsagabea, zazpi azaleko kopeta duena...?, amnistia fiskala bultzatzeko —eta aberaskumeenen milioika eurotako lapurreta itzelak legeztatzeke, azken batean!— horixe behar baita, hain zuzen: zazpi edo hamazazpi azaleko kopeta.

Ikusi-makusi. Zer ikusi...? Ikusten dut, ikusten dut... garbi ikusi ere, PPak nolana nahi nahasten dituela botere exekutiboa eta judiziala, jujeak gobernuaren agindupean jarriz noiznahi... eta nola emango diot neure laguntza eta nola neure sostengua demokrazia ez-demokratiko honi, zeinak agintean partidu frankista bat duen, gero eta autoritariagoa eta francozaleagoa?

Eskuindarretan eskuindarrenek gero eta eskuindarrago nahi lukete mundua, gero eta bidegabeago, gero eta mendeago, gero eta esklaboago. Hartarako, gainera, politika egiteko modu bertsuari heltzen diote, ezkertiarrek mespretxatzen dituztela: "Ezkertiarrek mundua aldatu nahiko zenukete, baina mundua pixka-pixkanaka aldatzen da; are gehiago: mundua, beharbada, ez dago aldatzerik... Gertatzen dena da zuek fundamentalista hutsak zaretela". Ba ote dago, ordea, diruarena baino fundamentalismo handiagorik...? Kontsultatu dut *google*-kin, ikusteko zenbat izan ote diren Espainian ustelkeriak jotako kasuak eta kasuotan inplikaturako politikariak, eta zerrenda amaiezinekin egin dut topo, hemen izen batzuk: ...AVE, Banca Catalana, Bankia, Epsilon, EREak, Filesa, Gürtel, Malaya, Púnica, Rumasa... // ...Roldán, Bárcenas, Correa, Rato...

Hori baino froga argiagorik, tximuengandik gatozela jakiteko: *money-money, monkey-monkey...!*

ETAk ikaragarriak egin ditu, ados. Eta, hala ere, nahiago nukeen ETaren afera elkarrizketa baten bidez bukatu izan balitz (ez ahaztu PPK ere, Aznarren

garaian, bere kontaktuak izan zituela ETArekin, zeinari *Movimiento de Liberación Vasca* deitzen baitzion!). Kolonbiak, alde horretatik, inbidia ematen dit. Bai, badakit eskuin muturrekoek —Uribek eta haren laguntxoek— prozesua blokeatu dutela, baina prozesuak, era batean edo bestean, aurrera egingo du. Hasteko, Gobernuak eta FARCEk sinatu dute jada bigarren akordioa. Hemen, baina, zer...? Zergatik ez du Espainiak ETArekin negoziatu? Alde batetik, ETak hankasartze taktiko eta estrategiko ugari egin dituelako (burkide burugabea da harrokeria), bistan da. Baina, bestetik, zer agudio erabili dute Espainiako hurrenez hurrengo gobernuek, agintaldiz agintaldi, bonbardaketa informatiboa bitarteko? Mila bider entzun izan dugu irrati-telebistetan eta irakurri egunkari eta aldizkarietan, ETakoak, indarkeria erabiltzen zuten heinean, terroristak zirela. Eta gobernuak, ondorioz, ez zuela sekula santan terroristekin negoziatuko. Baina hori ez da egia. Ez bederen egia osoa. Izan ere, Espainiako gobernuek ez dute ETArekin negoziatu, baina ez ETakoek indarkeria erabili zutelako, baizik eta behar adina indar erakutsi ez zutelako. Hori esatea izugarria da, baina hala funtzionatzen du munduak gaur egun, oro har. Bestela esanda: zer egingo zuen espainiar estatuak, ETak bonba atomikoa izan balu? ETakoek, hala ere, aspaldi jakin behar zuten ez zirela bonba atomikoa egiteko gai; aldiz, aurrera eta aurrera egin zuten, gero eta itsuagotuta... Aljeriako eta beste geltoki batzuetako geldialdiak aprobetxatu gabe.

Lehentxeago, BOTERETSUen bentajismoa izan dut aipagai; aipatu dut, orobat, nola baliatzen diren gizartearen erpinean dauden gizon-emakumeak hartaz, batzuetan disimuluan, besteetan disimulurik gabe. Adibidez, guardia zibilen koarteletan, aise irakur dezakegu errotulua: *Todo por la Patria*. Nik denak kenduko nituzke. Pentsatzen al duzue, izan ere, zer pentsa dezakeen euskaldun ez-zintzo eta ez-zuzen batek (horietakoak ere sortzen baitira E.H.an, ondoak balira bezala), errotulua irakurri ahala? "Eta beste aberri batekin amets egiten dugunok, zer...? Nik ezin al dut guztia eman neure aberri amestuaren alde...? Zergatik ez...? Nork esan du abertzaleok dugun ametsa betetzen saiatzea ez dela bidezkoa? Nork esan du sakratuagoa dela espagnolísimoen *España-Una-Grande-y-Libre (EUGL)* euskaldunon Euskal

Herria baino?". Eta gero, beharbada, mendira joango da, zuzendu ezin diren pagoekin bat egitera...

Beste galdera bat badaukat, baina, ildo honetatik, PPko gobernuari zuzendua: ikusirik nola permititzen dituzuen frankista ezin frankistagoen manifestazioak —*Fundación Fco. Franco*-k antolatzen eta bultzatzen dituenak, adibidez, jeneralisimoaren heriotzaren urteurrenetan—, ez al zaizue iruditzen, logika horren arabera, ETAREN aldekoak ere zera... eta zeraren zera... eta zeraren zeraren zera...? Ez, ez naiz esaten ETAREN aldeko manifestazioak permititzeko, baina, hurrengoan, biak ala biak debeka ditzakezue/zenitzakete, agian...

Orain dela bi hilabete hortxe-hortxe, telebistan, tertuliano bat ikusi nuen, Pablo Iglesiasi kargu hartu ziona, zergatik... eta EH Bilduko Oskar Matuteren interbentzioa txalotu zuelako, *¡porque era amigo de terroristas!* Baina ETAk orain dela bost urte utzi zituen bazterrera armak, ezta? Eta, hala ere, hitz egin dezagun beste behin, bai, biolentziaz...

Izan ere, *relatoaren* kontu horrekin, espagnolísimoek, beren hedabide ugariez baliatuz, gezurrak eta gezurrak esan eta lau haizeetara barreiatzen dituzte maiz. Beti mintzatzen baitira etarren ankerkeriaz, sekula ez berenaz. 829 pertsona hil zituen ETAk. Ikaragarria! Ados. GALEko hilketak gutxitan aipatzen dituzte, ordea. Are gutxiago X jauna, ekuazioa hain sinplea denean, lehen gradukoa!: $X-5=0$. Pablo Igleasiak ere eman zituen pista batzuk Espainiako parlamentuan, nik esaera zahar baten itxurapean eman ditzakedanak, *lapsus linguae* eta guzti: *A zer karea, / karakola eta barea!*, baina gauza jakina da bene-benetako espñoolek —*¡...mucho español...!*— ez dutela aintzakotzat hartzen Pablo, ez haren kuadrilla.

Aitortu behar dut, haatik, aurreko lerroak, Madrilgo estudianteeek Felipe González eta Cebrián jaunen aurka unibertsitatean egin zuten mobilizazioa gertatu baino lehenagokoak direla (puzzle bat bezala eraiki dut artikulua hau, momentu diferentetan idatzitako piezak osagai), eta aitortu, halaber, estudianteen mobilizazio horrek zeharo hauspotu eta biziagotu duela GALEko hiltzaileen afera.

Behin lehen graduko ekuazioa askatuta ($X=5=F$), beste galderatxo bat. Bueno. Galdera egin baino lehen, presta ditzadan zimenduak: jo dezagun

Oscar Matuteren tokian, Felipe González dagoela —edo Barrionuevo edo Vera—; jo dezagun, halaber, Felipek —edo Barrionuevok edo Verak— bere hitzalditxoa egin... eta norbaitek txalotzen duela —taldekide psozialistek, Guadalajarako presondegiaren aurrean egin zuten bezala, txalotuko dute behintzat, ezta?—. Bada, inork pentsatzen al du arestian aipatu dudan tertuliano horrek psozialisten txaloaldia gaitzetsiko zukeela eta haiek *amigos de terroristatzat* hartu?

Baina Espainiako gobernubururik ezagunena behin plazaratu ondoren —prestigiotsuena ere bai, beharbada—, plazara dezadan bigarrena: J. M. Aznar. Bera izan baitzen, Bush eta T. Blairekin batera, Irakeko gerra piztu zuen izarretako bat, milaka eta milaka biktima eragin zituen... eta are eragiten dituen, behin hasten diren (s)astakeriek ez baitute, antza, bukaerarik. Zenbat hil zituen ETak? 829 pertsona! Ikaragarria: esan dut! Zenbat dira Irakeko gerran hildakoak? Milaka eta milaka! Ikaragarri baina ikaragarriagoa! Aznar, ordea, kalean dago, eta Aitzol Gogorza, larri gaixotuta dagoen arren, zuloan jarraitzen du... Halaxe da. ETako presoek, orain dela bost-bat urte borroka armatuari uko egin zioten arren, itzalpean segitzen dute, eta Galindo jenerala, ipuineko belatzarra bezain libre, kra-kra-kra eta kar-kar-kar...! Espainiar estatuko kide guztiok omen gara berdinak Justiziaren aurrean... kaka zaharra! Esan dut hasieran batzuek tontotzat gaituztela, baina gu ez gara hain tontoak, beharbada, *betiko horiek* esaten duten bezainbestekoak ez bederen: izan ere, hain da agerikoa espainiar agintari eta legelari batzuen mendeku nahia, EHa bakebidean jartzeko prozesu honetan guztian...!

Lehenngoan, adi-adi entzun nien bi konstituzionalistei Espainiako irrati-kate batean: bata PPkoa zen, bestea PSOEkoa, biak haurtxo banaren aitak; bestelakoan, biak ziren futbolzale, eta biak, jakina, EUGLaren futbol-selekzioaren jarraitzaile sutsu... beren burua —logikarik ilogikoenaren mende— ez-nazionalistatzat zuten arren... nahiz eta biek ala biek aitortu zuten, jarraian, beren bizitzako egunik handiena —beren haurtxoen jaioteguna alde batera utzita, hori bai— EUGLaren futbol-selekzioak Hego Afrikan munduko kopa irabazi zueneko izan zela, ez dudarik, ez mudarik...

kantari ere aritu ziren biak ala biak, munduari beren ez-nazionalismoa berriro erakusteko ahaleaginean-edo: *“¡Soy mucho, pero mucho-mucho! ¡Soy...”*.

Elkarrizketa horretan, ausartu ere egin ziren bi espagnolísimoak aholku bat ematera. Guri, alegia: euskaldun abertzaleoi. Eta katalanei, bide batez. Eta galegoei. Zer esan zuten...? Bada, nazionalistok bidaiak genituela nazionalismoaren sendagai; ez baitago esan beharrik gure nazionalismoa gaixotsun (gaixokeria, alegia!) larritzat dutela; beraiena, aldiz: osasungarrísimo-bizigarrísimo-kemendunísimo-loriosísimo-frankísimo-eta-espagnolísimotzat; panorama honetan, haien eta gure artean dauden diferentzien jakitun, gomendioa ere egin ziguten, bidaiatzeko eta bidaiatzeko. Bada, nire esperentzia kontatuko dizuet: internazionalismoaren izenean abiatu nintzen Venezuelarantz, baina han, indiorik miserableenekin harremanetan jarri bezain laster, egin nintzen nazionalista. Han sentitu nintzen —Venezuelan!— inoiz baino euskaldunago... inoiz baino txikiago ere bai, baina baita inoiz baino harroago ere, aldi berean. Eta harez gerotik, hala segitzen dut, herri indioen eta herri txikien independentzia bultzatzen dezaketen mugimenduen alde, sozialismora bidean betiere.

Beste datu bat, gauzak bere tokian jartzeko balio behar izango lukeena. Espainiako hedabideek, izan ere, sekula ez dute aipatzen —aldiz: isiltzen saiatzen dira, edo ukatzen— Euskal Herrian tortura sistematikoa bat dagoela, estatu-egituraren euskarri eta sostengu diren indar errepresiboek gauzatua: grisek, berdeek... baita ertzainek ere, maila arinago batean bada ere —torturaz-eta mintzatzen garenean, ordea, zilegi ote da “maila arinak” eta “maila astunak” bezalako espresioak bereiztea, tortura kasu guztiak, salbuespen bat bera ere gabe, ezin larriagoak direnean...?—. Kontuak kontu, 1.960tik 2.013raino, 4.009 tortura-kasu izan dira E.H.an! Pako Etxeberriak eman zituen datuok, gaian autoritate eztabaida ezina den adituak. Kopuru horri, gainera, 1.939tik 1.960raino izan diren tortura-kasuak erantsi beharko litzaizkioke, frankismoaren urterik errepresiboenetan, eta horiei, azkenik, 2.013tik gaurdaino izan direnak. 5.000 kasu guztira...? Bada, 5.000 herritar, poltsa, elektrodo eta gainerako torturagailuen mehatxu fisiko zein psikologikoaren pean! Eta gero, gainera, espainiar estatuak saritu egiten ditu hainbat eta hainbat torturatzaile: *zu kaboa zinen; bada, orain sarjentu; / zu*

tenientea zinen; bada, orain kapitain... Galindori ere gradua goratu zioten! Zer demokrazia arraio da hau, tortura zuritzen duena, baita, zuritzearen zuritzeaz, kareztatzen ere? Kontrastean, egunotan, Altsasuko istiluak direla-eta, PPko Barne Arazoetako ministroa gorroto-delituaz mintzatu zaigu. Nork ereiten du, ordea, hemen, gorrotoa? ETAk erein zuen, bai, kiloka eta tonaka! Baina zer esango lukete kolore guztietako polizien komisaldegietatik pasatutako 5.000 euskalerritar torturatuk? Tortura ez baita nolanhiko huskeria. Nik behintzat nahiago nuke tiro bat buruan, poltsak eragindako itomena jasan behar izatea baino... elektrodoak... mota orotako kolpeak... umiliazioak... *suma y sigue, suma y sigue...* Orain, berriz, Veraren nobela batean oinarrituta —*El padre de Caín*—, garbitu ezin diren gertakizun ezin lazgarriagoak (Zabaltzaren kalbarioa eta beste askorena: Intxaurrondo=Lintxaurrondo) garbitu nahian omen dabilta, pelikula eta dokumental manipulatuaren bidez. Badirudi, halaber, Serrano Suñer tipo jator bezain erromantikoa izan zela.

Suma y sigue, suma y sigue...

Baten batek esango dit ez naizela objektiboa, ni horretan saiatu naizen arren. Badakizue zer pentsatzen dudan? BOTEREA da sekula objektiboa ez dena. ETAREN ekintza oker askoren lekuko izan gara, tamalez. Ikusi ere ikusi izan ditugu teleberri luzeak, non, odol-arrastoen eta atentatuaren beste mila ezaugarriaren bidez (bonba autoen leherketaren ondorio latzak: karrozeri mailatuak, kristal hautsiak... sirenen hotsak... biktimen senideen negarrak...), ETAKOEN ankerkeria ageri-agerikoa egiten baitzen, halako moldez, non, telebistari itsatsita zeudekeèn ikusle-entzule potentzialei barrutik aterako baitzitaien: "Kriminal bihozgabeak halakoak...!" Noiz ikusi dugu, ordea, indar errepresiboek aplikatutako torturaldi amaiezin bat telebistan? Objektibitateak hori eskatzen baitu, etsai diren bi aldeak luparekin arakatzea eta aztertzea, ezta? Ni hori egiten saiatzen naiz, BOTEREa ez.

Eta izan, izan dira gero torturak herri honetan!, arestian mintzatu gara horretaz. Badakizue, baina, zer erantzun zuten bi konstituzionalistek, irratiesatariak bere galdera —*¿Qué opinión os merece el conflicto vasco?*— egin orduko? Hauxe: *¡En Euskadi ni hubo ni hay conflicto vasco!* Horixe ihardetsi zuten biek, haserre antzean, klonak balira bezala. Baina gaizki ari naiz.

Bietako batek, izan ere —PPkoak, nik uste— aurrera jarraitu zuen: *¡Ni habrá!* Eta ni, harri eta zur! Eskerrak ez dela gure Herrian gatazkarik izan —ez izan, ez izango!—, bestela ez bainago ziur lerro hauek idazteko gai izango ote nintzen...!

Bukatzeko, *Gernikako arbola*-ren esaldi bat —*eman 'da zabal zazu / munduan fruitua*— neure egiten dudala, mundura egingo dut salto.

Ikusi-makusi: zer ikusi...? Ikusten dut, ikusten dut... munduan gero eta arma gehiago dagoela... Ume txikiek ere bai baitakite aizkoradunak labanaduna menderatzen duela; fusildunak, aizkoraduna; tankedunak, fusilduna: horrela jarrai genezake bonba atomikoraino. Eta gobernu-lanetan murgilduta dauden gobernariak badakite (tontorik tontoenak ere bai, nik uste), arma gehien eta indartsuenen dituenak probabilitate guztiak dituela munduan lehenetan lehen izateko, giza oilategiko giza oilar... giza arrano... giza misil. Horregatik armen gero eta goragoko produkzio-goraldi ero hau! Gero, politikariak daude, gerrak asmatzen dituztenak (Bush-ek eta Blair-ek eta Aznarrek Iraken, Hollande-k Libian eta Malin, e.a., e.a.) produzitutako armak erabil daitezten eta negozioak behera egin ez dezan... demokrazia santuaren izenean maiz, hori bai: gu santu orbangabeak baikara, eta haiek —besteak— terrorista anker krudel ezin basatiagoak! Eta zer egingo dugu Trump-ek botoi gorria sakatzen badu...? Baten batek esango dit ez hain apokaliptikoa jartzeko, baina hara: armen negozioari hegoak mozten ez badizkiogu, jai! Gaur bitarteko tekniko guztiak baititugu mundua desegiteko... Talde bakezale eta antimilitarista batzuk hasi ziren egiteko honetan aspaldi. Baina bulkada eta bultzada berri bat behar du mugimendu horrek. Gaur bihar baino hobeto! Oraintxe! Oraintxe, bai, ekin beharko genioke armen eta armaden aurkako mugimendu sozial ahalik eta zabalena osatzeari, mundu osoan. Zaila da horrelako mugimendu bat gauzatzea, ia ezinezkoa... Are zailagoa ikusten dugunean zer hiru negozio diren, munduan diru gehien mugitzen dutenak, *google*-tik oraintxe jaso dudan informazioan: lehena, drogei lotutakoa da; bigarrena, prostituzioari; hirugarrena, armagintzari; eta laugarrena —inork jakin nahi baleza—, bankuei. Guztiok egongo gara, bestalde, ados, esaera zaharrarekin: "munduan, dirua nagusi", zera esatera garatzamana... munduan hiru negozio horien jabeak eta

bultzatzaileak direla nagusi: droga-, puta- eta arma-saltzaileak, alegia, eta droga-, puta- eta arma-trafikatzaileak: hara nora eraman gaituen munduan nagusietan nagusi den neoliberalismoaren kapitalismo ezin lohiagoak!

Orain arte ez dut klima aldaketa aipatu, baina korapilo horrek ere ederki estutu diezaguke berandu gabe: Lurraren berotzeak poloetako izotzaren urtzea baitu ondorio, izotzaren urtzeak itsas mailaren igoaldia, itsas mailaren igoaldiak lur batzuen desagertzea —Holanda eta Herbehereak, Floridako hegoaldea, San Frantziskoko badia, Beijing- eta Shangai-inguruak, Kalkuta, Bangladesh, non, gaur egun, 60 milioi pertsona diren...—, e.a., e.a.

Zaila da, munduan, armen eta armaden aurkako mugimendu sozial eta zabal baino zabalago bat osatzea, ia ezinezkoa —nioen—, baina hori da, nik uste, bide bakarra, gizakiok geure burubarruan sortu eta elikatu ditugun munstroek deuseztatu eta irents ez gaitzaten... gerra atomiko batek desegin ez gaitzan, birrintu ez gaitzan, gure planeta honetan diren eta ez diren mapa orotatik ezaba ez gaitzan... baita, gurekin batera, beste milaka espezie ere. Baina bide horri ekiteko, nork bere etxetik hasi behar... eta, hala, kontu ezin serioago bat aipatu nahi nuke, gero eta ulergaitzagoa egiten zaidana, eta Euskal Herriaren bakebidean parte hartzen duten gizabanakoei, partiduei, Euskal Gobernuaren kontseilariei, talde eta elkarte guztiei zuzenduta legokeena: prozesu honetan, izan ere, baldin eta ETAKoen jarduna okertzat eta negargarrizat jo badugu, zergatik ez Euskal Herriko arma-negozio ezin biribilagoena —SENER, ITP, AERNNOVA, SAPA, BERETTA-BENELLI IBERICA, OESÍA... DASSAULT...—, zeinek ETAK baino biktima dexente gehiago eragin eta eragiten dituzten? Zer da hipokrisia hau, bortizkiago kondenatu beharko genituzkeenak ez ditugula kondenatzen?

joan mari irigoien (2.016-XI-30)

P.D. (1): Artikulua bukatutzat eman ahala, beste kontu bat etorri zait burura, eta horren berri ere eman nahi nuke. Orain dela egun batzuk, izan ere erakusketa bat izan genuen, presondegi, babesetxe eta psikiatrikoetako hainbat egoiliar —tartean, ETAKo bi preso— parte-hartzaile, Donostia 2016koek antolatu duten programazioaren barruan. Bada, parte-hartzaileen

lanak jaso ondoren, Donostia 2016ko arduradunek ezetz, ETAko bi presoek ezin zutela beren obra erakutsi, biktimen sentiberatasuna zauritu zezaketelakoan. Eta amorrua sentitu dut. Ez gorrotoa, baina amorrua bai. Handia. Biktima batzuen mina absolutizatu egiten baita, beste askorena aintzat hartu gabe. Francok 1.936ko gerra irabazi zuen... eta orain, haren oinordekoek, *relato* ditxosozkoa bitarteko, garaipen moral baten atzetik dabilta, historia komeni zaien lekutik hartuta, hori bai, eta haien arbasoek egin zituztenak ahaztuta... baita Euskal Herriari herrialde gisa legozkiokeèn oinarritzko eskubideak onartu gabe ere.

Jo dezagun egun batean COVITEko kide bat sentiberatasunean zauritua sentitzen dela, ni kalean ikusteagatik, ditudan ideiak ditudalako. Baina-eta orduan zer... etxean gelditu behar ote dut betiko, etxean preso?

Suma y sigue, suma y sigue...

P.D. (2): Artikulu hau 2.016-XI-30ean eman nuen bukatutzat, baina, halakoetan, badakizue: gaia hain serioa izanda, zuzenketa batzuk egin behar hor, beste ukitu batzuk han... lanak luzatu egiten direla, alegia! Prozesu honetan, hala ere, abenduaren 15a jo nuen azken mugatzat... eta gaur, hain zuzen, abenduaren 15a da... baina hara: ez nuke artikulua amaitu nahi ezusteko baten berri eman gabe: ezusteko atsegina, aspaldiko partez, atzo gertatua. Zer gertatu zen, bada, atzo? Kolonbiako presidentea den Santos jauna, zeinari berriki eman baitzioten Bakearen Nobel Saria, euskal presoek sakabanaketaren aurka mintzatu dela!

Bejondeiola eta bejondeigula!